

Deitu **1717**ra, edo zatoz Euskaltelen saltokira.



Ostirala, 2008ko urriak 3, 17:08:49an berri

PAPERREKO EDIZIOA **EUSKAL HERRIA** MUNDUA KIROLA PLAZA **EZTABAIDAGUNEA** **BLOGAK**
BEREZIAK

Papereko edizioa Ostirala, 2008ko urriak 3

[SAILAK >](#) | [Harian](#) | [Iritzia](#) | [Kirola](#) | [Agenda](#) | [Plaza](#)

PLAZA

Sagar kopuru handia espero dute aurten

Oier Arregi

Aurten Euskal Herriko sagastiek ohikoa dena baino sagar kopuru handiagoa emango dute, hori da uzta garai honetako berririk garrantzitsuena. Jose Mari Alberro Astigarragako Sagardoetxeko arduradunaren esanetan, «ematen du aurreko urtekoa baino askoz kopuru handiagoko uzta datorrela aurten», beraz, optimismoa da nagusi egunotan sagarra biltzen ari direnentzat.

Urtero ekarri ohi dute euskal sagardogileek atzerriko sagarra, izan ere, gero eta sagardo gehiago edaten da, eta sagardogileek ez dute beste irtenbiderik izaten eskariari erantzuteko. Hala ere, aurten atzerriko ekarriko den sagar kopurua txikiagoa izango da, Alberroren ustez: «Aurreko urtean, gutxi gorabehera, sagarren %40 izan zen bertakoa, baina aurten gehiena bertako sagarra izango da».

Aurtengo uztako sagarrari buruz gehiago jakiteko, Gipuzkoako Frutagintza Elkarteak (Fruitel) ikerketa egin du: astean behin egiten zaizkie probak sagarrei, urte guztian. Bildutako emaitzen arabera, sagar kopuru handia izango da aurtengo uzta, baina tamaina txikiagoa izango da. Horrez gain, sagastietako fruituen ehuneko handi bat sagar harrak jota dago, nahiz eta aurreko urtean baino kopuru txikiagoa izan. Horrela, ikerketen bidez sagarra hobeto ezagutzen da. Ikerketetan, besteak beste, sagarraren heldutasun maila eta almidoiaren erregresioa neurtzen dira.

Tradizioari jarraituz, urtarrilean hasiko da sagardoaren denboraldia, eta, Alberrok azaldu duenez, denboraldi amaiera jada ez da tradiziozkoa: «Tradizioz sagardoaren denboraldia maiatzean amaitzen da, baina gaur egun sagardoa hotz mantentzeko dauden baliabideekin urte osoan egon liteke irekita sagardotegi bat». Horrela, Sagardoetxeko arduradunaren ustez, sagardotegien jarduna «erabat aldatuta» dago gaur egun. Haren ustez, «duela 35 urte sagardotegiek industria bilakatzearen edo atek itxtearen arteko hautua egin behar izan zuten, eta industria bilakatuta bakarrik iritsi zitezkeen gaur egun arte».

BLOGAK

[Nafar periferiatik](#)
Ilun-gorotza

Erantzunak: 0

[Hitz beste](#)
Teatroan

Erantzunak: 0

[Konponbidearen talaia](#)
Patxi Lopezen txapel

Erantzunak: 10

HARPIDEDUNEN KIO:

Saridunak

EZTABAIDAGUNEA

[Munduko ekonomia](#)
Kezkatuta al zau

Eman zure iritzi

[Udazkeneko testuinguru](#)
Aurrera egiteko bideri
duzu?

Eman zure iritzi

© BERRIA-Edizio Digitala
berria@berria.info - www.berria.info

[Lege Informazioa](#)

Euskal Editorea S.L. , Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel 943 304 030 Fax 943 590 17:

